

# TXANGOIA IRATXOREKIN VALL DE BOÍ ETA AIGÜESTORTESKO PARKE NAZIONALERA (LLEIDA)



## EGITARRAUA

**ABUZTUAREN 26A: IRURTZUNDIK IRTEN TAÜLL-ERA IRITSI**  
Arratsaldez:

A aukera: Boi eta Taüll herriak eta bere eliza erromanikoak ezagutzea eta Boi-Taüll eski- pistetako paisaiak bisitatzea.

B aukera: Aigüestortoserako txangoa: S. Nicolau ermita, LLebretako estanya, Espiritu Santu ur- auzia, Aigüestortesko Planella (zelaia) eta Llong estanya. Parkeko sarreratik 4 ordu inguruko ibilaldia da. Itzultzeko parkerako zerbitzua ematen duen taxi bat hartu beharko litzateke Aigüestortesko Planellan (1.800 m), 7ak baino lehen.

### ABUZTUAREN 27: IGOERA ETA TXANGOAK ETA ITZULERA EGUNA

A aukera: Aigüestortoserako txangoa. Parkean sartzeko Boiko taxia hartu behar da. Parkean, hainbat aukera daude:

- 1- Parkeko kontrolgunetik oinez igo Llong estanyraino (4h).
- 2- Utzi taxia Llebreta estanyan eta Llong estanyraino paseoa egitea.
- 3.- Aigüestortes- eko Planell-ean (1.800 m) taxitik jaitsi, Planellaz eta San Nicolau erreka gozatu eta Llongeko estanyra iritsi (2.000 m) ibaiaren ondotik doan pista erosotik. Itzultzean, Estany Llongeko aterpetxean bazkal ddezakete. Autobusera itzultzeko, guztiek hartu beharko dute taxia Aigüestortesko Planellan, oinez jaisten ez badira, behintzat.



B aukera: Oso goiz (7etan?) Caldes de Boítik abiatu (1470 m) Hego Besiberrira (3.023m) igotzeko. Llubriketo ibarra, Gémenako estanyak (2250m), Gelats estanyak, Abellerseko lepoa, Hego Besiberri Hegoaldea. Panelek 5,15 orduko igoera adierazten dute, baina denbora gutxiagoan egin daiteke. Itzultzean, Caldes de Boíko balnearioan txaron dezakete.

Arratsaldean, 5:00ak aldera, Irurtzunera itzuliko da.

Hotelean afaria eta gosaria izango genituzke.

Beste batzuetan bezala, zerbait eramango litzateke autobusa hartu aurretik bazkaldu/ askaltzeko

